

IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I. TOPAKETA



ESKOLA-BARATZEA HURBILAGOTIK BEGIRATUTA

*IKASLEAK:

Zer iruditu zaizue baratzea?

- "Hasieran arraroa"
- "Zapatilak zikintzen ditut baratze-alorren ondotik pasatzerakoan, euria ari duenean"
- "Kendu didate lagunekin esertzeko bankua"
- "Patioa politago dago orain"

Zer gustatzen zaizue gehien eskola-baratzeaz?

- "Baratzetik gehien gustatzen zaidana uraza da"
- "Gehien gustatzen zaidana lurra iraultzea da eta gutxien, mendixkak egitea" (2)
- "Tomatea ez dela"
- "Gustatzen zaidana: baratzean egotea. Gustatzen ez zaidana: mendixkak egitea"
- "Gehien gustatu zaidana izan da landatzea, eta landareak ureztatzea eta hazten ikustea ere gustatzen zait"
- "Gehien gustatzen zaidana uraza eta tomatea dira"
- "Gehien gustatu zaidana landareak landatzea izan da"
- "Gustatzen zaidana tomatea da"
- "Tomatea, azenarioa, landareak, uraza eta ureztatzea"
- "Gustatzen ez zaidana txitxirioak dira"
- "Denbora galtzea. Ikastea eta lanabesak maneatzea. Landatzen ikastea eta material berriak.
 - Landare motak ikastea".
- "Denbora galtzea. Traste berriak. Landareak ikasten ditugu.
 - Landatzen ikasten dugu. Prozesua"
 - "Espazioa. Tresnak ezertarako ez erostea"
 - "Asko gustatzen zait, batzuetan, lurra ukitzen dudanean, natura ongi erabiltzen ari naizela sentitzen baitut, natura gustatzen zaidalako.
- "Baratzetik gehien gustatu zaidana landatzea da: tomateak, salbia, erremolatxa, marrubiak,... eta tresnak erabiltzea, eta batez ere nire gelakideekin gozatzea"
- "Landareak ureztatzea eta haziak jartzea gustatzen zaizkit.
 - Landare usaintsuak gustatzen zaizkit oso usain ona darielako"
- "Azenarioa eta ilarra gustatzen zaizkit"





Zergatik animatuko zenituzke beste eskolak baratzea edukitzera?



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

*IRAKASLEAK:

Zer eman dizu eskola-baratzeak irakasle eta/edo pertsona gisa?

- "Poz handia ematen zidan eta hainbat urtez bila nebilan proiektu bati ekitea. Ezagutzak eta esperientziak ikastea curriculumaren barruan pixka bat ahaztua eta egunerokoan hain gertukoa denaren inguruan".

- "Poz handia eta gure ikasleekin ikasteko eta esperimendatzeko gogoia. Ikasteko asko"

- "Baratzeak ezagutza teknikoak ematen dizkit, eta ikasgelako lanarekin konektatzeko aukera. Bestalde, ikasleekin erlaxatzeko eta gozatzeko gunea da".

- "Ikasleen parte-hartze "boluntarioa" eta guri laguntzeko duten gogoia ikustea"

- "Lehenik eta behin, baratzearen proiektuak poz handia eman digu ikastolan, komunitate guztia berehala engaiatu da, eta ohartu gara zer garrantzia duen naturan modu aktiboan parte hartzeak."

- "Baratzeak esperientziak eta ezagutzak ematen dizkit, niretzat nahiko ezezaguna zen gai bati buruz. Halaber, pertsona gisa, erlaxatzeko denbora da, atari zabaleko gune bat eskolako stres-uneetan"

- "Irakasle gisara, lana izan da niretzat; talde eragilearen kide gisara, antolaketa-lana izan da, eta tutore moduan, ikasleekin proiektu berri bat hastea, baratzearen inguruan dituzten interesetatik abiatuta. Pertsona moduan, nire haurtzaroarekin konektatzea eta ikasleek hain ongi hartu duten proiektua ilusioz bizitzea"


- "Esperientzia berria. Motibazioa eta ilusioa. Ezagutza berriak. Ikasteko gogoia."



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ



*IKASLEAK

Zer eman die eskola-baratzeak ikasleei?

–"Ikasleak etengabe ari dira taldeka lanean. Esperientzia, autonomia, ikaskuntza, Erantzukizuna, lankidetzeta. Harreman zuzena naturarekin. Ekimena"

–"Motibazio eta ikasteko gogo handia. Baita ezagutza berriak ere, eta baratzea zaintzea zein garrantzitsua den baloratzea. Ikasten eta esperimendatzen jarraitzea"

–"Esperientziak, ezagutza. Erantzukizuna, partekatzea. Konpromisoa. Motibazioa eta ilusioa. Ingurumen kontzientzia"

–"Ikasleentzat oso esperientzia positiboa izaten ari da. Ezagutza bizia eta esperientzia-lana da. Haientzat, erlaxatzeko, gozatzeko, eta horrez gain, ikasteko gune bat da. Maite dute hara joatea eta baratzeari lotutako jarduerak egitea"



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

- "Ikasleentzat ilusio handia izan da ikustea eskuekin lan egin behar zutela, lurrarekin eta, oro har, naturarekin lotzen zituen lana egin behar zutela. Guztiek beren burua eskaintzen dute baratzean lan egiteko, eta elkarrekin egindako lanari esker harremanak estutu dituzte eta beste batzuk sortu"


- "Proiektua "hasi berria" bada ere, askatasuna sentitzen hasi dira, kanpoan eta landareetatik gauzak ikasten ari dira, hazitik zerbait haz dezaketela ohartu dira eta talde-espiritua lantzen ari dira, helburu komun bat lortzeko"

- "Nik pertsonalki, poztasun handia sentitu nuen irakasleek, gurasoek, haurrek eta abarrek parte hartzeko zuten ilusioa ikustean. Haurrak poz-
pozik daude baratzeera joan eta lurrarekin, urarekin eta urazekin gozatzeaz, eta batez ere, modu aktiboan ikasteaz.

- "Uste dut baratzeak esperientzia berria eskaintzen diela ikasleei, ikasgelatik ateratzea, atari zabalean egotea eta konturatu gabe ikastea"

- "Alde batetik, han bertan egiaztatzea nondik datozen kontsumitzen ditugun produktuak. Motibazioa, kontsumitzen ez zituzten produktuak probatzeko, baina "propioak" direnez, probatu egin dituzte"

- "Baratzea etxean duten senitartekoekin harremanak sendotzea (aiton-
amonekin, osaba-izebekin, ...)



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

IKASTETXEA: Rochapea HLHIP

IZENBURUA: Baratzea dinamizatzea (patioa)

DESKRIBAPENA: egunero, aisialdirako ordu erdian, baratzea irekitzen da, patioko beste gune baten moduan. Irakasle batek ikasle boluntarioak biltzen ditu (3 gela bakoitzeko), eta mantentze-lanak eta talde eragileak zehazten dituen bestelako zereginak egiten dituzte. Asteko egun bakoitza maila bati dagokio.

Zergatik da interesgarria?

- Aisia-jardueren eskaintza zabaltzen delako haurren denbora librean
- Baratzea egunerokotasunean txertatzen da.

Ikasleek baratzea gehiago erabiltzen dute, ez baitute bakarrik "eskola-uneetan" lantzen.

Zailtasun nagusiak

- Meteorologia
- Hainbat zereginetarako denbora falta

IKASTETXEA: Rochapea HLHIP

IZENBURUA: Garbiketa-patruila

DESKRIBAPENA: egunero, aisialdirako ordu erdian, LHko 1. mailatik 6. mailara bitarteko ikasle talde bat patioa garbitzeaz arduratzen da. Txaleko hori bat daramate jantzita, eta poltsak edo ontziak eramaten dituzte, materia organikoa eta ez organikoa birziklatzeko. Materia organikoaren parte bat konpostontzi batera botatzen da.

Zergatik da interesgarria?

- Ikasleak gehiago jabetzen dira patioaren eta birziklatzearen garrantziaz.
- Martxan jarri dugunetik, patioa garbiago dago.

Zailtasun nagusiak

- Zenbait ikasle oraindik ez dago prest patioa garbi mantentzeko.
- Zenbait ikaslek ez dituzte argi patruilaren betekizunak.



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

CENTRO EDUCATIVO- IKASTETXEA: Sanduzelai

TÍTULO - IZENBURUA: Ziklo txokoak

DESKRIBAPENA: 3. eta 4. mailetakoko ikasleok lau lantegi abiatu ditugu. Hona lantegiak: supermerkatua, sukaldea, irratia eta eskola-baratzea. Elkarren artean lotura dute. Baratzeari dagokionez, hurrek baratzearen prozesu osoa egiten dute: lurra prestatu, lautu, landatu, zaindu eta fruituak bildu.

Zergatik da interesgarria?

- Lantegiei zentzua ematen diete.
- Ulertzen dute nondik datozen hainbat elikagai eta non amaitzen duten.
- Elkarren artean integratzen dira.

Zailtasun nagusiak

- Espazioa eta denbora.
- Lantegi bakoitzean 15 haur daude eta materialak mugatuak dira.

IKASTETXEA: Sanduzelai

IZENBURUA: Lorategi Japoniarra

DESKRIBAPENA: 3. zikloko ikasleek lehiaketa baten oinarriak egin zituzten, lorategi japoniar bat abiatzeko, hura gauzatzeko gutxi erabiltzen den barnealdeko espazio batean. Talde bakoitzaren lanak aurkeztu ziren, eta horien artean hautatu. Ondoren, baratzearen lan taldeko familia-taldeak egin zuen.

Zergatik da interesgarria?

- Hezkuntza-komunitate osoaren parte-hartzea.
- Hainbat hezkuntza-alorren esku-hartzea: matematika, hizkuntzak, plastika,...
- Ikasleek pentsatutako zerbait gauzatzea.

Zailtasun nagusiak

- Materiala garestia da (lehen aldian), motibagarria izateko iragankorra izan behar duen zerbaiterako.
- Ez dago lekurik



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

IKASTETXEA: García Galdeano

IZENBURUA: Hastapenak: lurra baratze-zapaldetan

DESKRIBAPENA: lehenengo lur-zaku sorta baratze-zapaldak betetzeko. Eskola-saio bakoitzerako koadrante baten bidez antolatu ginen, irakasle bakoitza ikasle-talde batekin lurra botatzera jaits zedin. Ez genuen pala askorik, beraz, ezin ginen talde asko aldi berean egon. Hala ere, nahi gabe, hainbat maila batera aritu izan ziren eta esperientzia are hobea izan zen. Ikustea nola txikienen eta handiagoen artean modu autonomoan antolatu eta elkarri laguntzen zioten, helduen laguntzarik gabe, adibide paregabea eta esperientzia oso positiboa izan zen.

Zergatik da interesgarria?

- Ikasleen ekimena.
- Mailen arteko lana.
- "Bizimodua ateratzea", gogoia eta motibazioa daudenean.
- Erronka berriak ezbeharren aurrean.
- Ikasleen artean harremanak estutzen dira eta beste batzuk hasi.
- Ikasleen inklusioa.

Zailtasun nagusiak

- Zailtasunak egon ziren lehen lur-zakuen sorta nahiko izan ez zelako, eta baratze-zapaldak betetzeko beste bi egun gehiago antolatu behar izan zirelako. Eta halere, ikasleek pozik egin zuten, kexatu gabe (jada egina zuten lana, eta errepikakorra zena).



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

IKASTETXEA: García Galdeano

IZENBURUA: Materia organikoa biltzeko antolaketa.

DESKRIBAPENA: lehen hezkuntzako antolaketa-bloke bakoitzak "frutaren eguna hamaiketakoan" ezarri du, konpostegia elikatzeko. Blokeka ere, egunero, dagokion blokeak ikasgeletan biltzea egiteko antolaketa egiten du, eta 3. blokea, gainera, irakasle-gelaz arduratzen da. Ikasle pare bat arduratzen da lan horretaz egunero, bere blokean, goiza amaitzean.

Zergatik da interesgarria?

- Erantzukizuna eta konpromisoa.
- Antolaketa-lana.
- Hondakinak modu egokian banatzea.
- Pentsamendu kritikoa.

IKASTETXEA: Amaiur Ikastola

IZENBURUA: Landareak

DESKRIBAPENA: Hona gure helburua Amaiurren:

- Baratze bat martxan jartzea: aurten urazak landatu ditugu.
- Barruko balkoietan landareak jartzea.
- Patioko zuhaitzen izenak eta ezaugarriak ezagutzea.
- Patioa baratze-zapalden eta material naturalen bidez atseginago egitea, haurrak beste modu batean jolas daitezten.
- Bi konpostontzi ditugu eta bertan guraso batek konposta egiten du: konposta egiten ikastea.

Zergatik da interesgarria?

- Naturara hurbiltzeko
- Ezagutzeko landare baten hazkunde-prozesua (itxoinaldia)
- Landareen biodibertsitatea ezagutzeko

Zailtasun nagusiak

- Ekonomikoak.
- Ezagutzak.
- Prestakuntza.
- Denbora falta.



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

IKASTETXEA: Mendillorri HLHIP

IZENBURUA: Izenak jartzen.

DESKRIBAPENA: Kartelak egitea, landatu genituen fruta eta barazkien izenak jarrita, zentroan erabiltzen diren hizkuntzetan, barietate bakoitza identifikatzeko, birziklatutako plastikoak eta zurezko makiltxoak erabiliz.

Zergatik da interesgarria?

- Baratze-zapaldak landareez betetzeko ilusioa bazuten ere, ikasle gutxi gai zen gauza bakoitza zer zen identifikatzeko. Hastapen jarduera gisa, oinarrizko informazioa ematen du, ezagutzeko zer diren erraboilak, hostoak, fruituak,...

Zailtasun nagusiak

- Irakasle batzuek ez zuten esperientziarik landatze-teknikei eta espeziei buruz.

IKASTETXEA: Mendillorri HLHIP

IZENBURUA: Baratze-koadernoak

DESKRIBAPENA: Erregistro-koadernoak prestatzea, bertan baratzeari egindako bisiten inguruko informazio guztia jasotzeko.

Zergatik da interesgarria?

- Ikusarazi digu jarduera batek, ikuspegiaren arabera, hainbat taldek erabil dezaketela.

Zailtasun nagusiak

- Koaderno horiek hainbat talderi eta adinari zuzenduta zirenez (Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzara), oso zaila izan da eredu bakarra erabiltzea, eta koadernoak talde bakoitzera egokitu da, beharren arabera; horrek aparteko lana ekarri du.



IRUÑEKO ESKOLA-BARATZEEN I.TOPAKETA



GEURE ESPERIENTZIEKIN HAZIZ

IKASTETXEA: Doña Mayor HLHIP

IZENBURUA: Baratze-zapaldak diseinatzea.

DESKRIBAPENA: 6 baratze-zapalda egin ziren lehen hezkuntzarako, eta 4, haur hezkuntzarako, 4 m x 0,8 m-ko bakoitza. Mailaka antolatu zen zer landatu nahi zuten baratze-zapalda bakoitzean.

Zergatik da interesgarria?

- Ezagutza teknikoak ematen ditu baratze-zapalda bat diseinatzeko. Prestakuntza ematen du haztegieta, baratze-zapaldetan, eta abarrean landatzeko.

Zailtasun nagusiak

- Irakasleek baratzeetan esperientziarik ez izatea. Azken batean, ez jakitea dagozkien distantziak, nola elkartu.

NORANTZ GOAZ?

- ELEGIR EL ALUMNADO LO QUE SE QUERE PLANTAR.
- ORGANIZAR MEJOR LOS TURNOS DE RIEGO.
- PINTAR EL VALLADO Y/O BANCALES DEL HUERTO, APROVECHANDO LA ROTACIÓN DE PLANTAS.
- PLANTAR NUEVAS PLANTAS.
- MÁS VARIEDAD DE SEMILLAS.
- ÁRBOLES (PLANTAR CON 3 AÑOS PARA VER SU CRECIMIENTO A LO LARGO DE LA ESCOLARIDAD).
- FACILITAR EL CAMINO A LA HUERTA (DISEÑO).

- Plantarles Arbol.
- COMPRAR NUEVOS MATERIALES
- REVISAR Y LIMPIAR HERRAMIENTAS.
- MEJORAR LOS MATERIALES
PONER ASPERSORES
- ~~REGAR EN TIEMPO~~
- REGAR EN TIEMPO.
- IR MAS A LA HUERTA
- PONER MAS FLORES
- Esdon Estudiar de la naturaleza

- ## MEJORAR
- MAS variedad de plantas.
 - Competiciones entre plantas.
 - Abrir las flores al publico.
 - Ir más a menudo a la huerta.
Hacia Donde.
 - Usar los alimentos en el comedor.
 - Donar los alimentos de la huerta.

